

Del Burgo-ri euskal batasunaz gehiago

Deia, 1977-08-06.

Del Burgo-k euskal batasunaz esan dituenak salatu genituen lehengoan.

Del Burgo eta honen antzeko beste batzuentzat, gaur abertzaleok eskatzen ari garenak, gehiegikeria, "separatistak", eta nafartasunetik urrun daudenak dira.

Eta ez da egia.

Egia denak beti uzten du arrastoren bat, eta hauxe erakustea izango da gaur politikero honi egin genezaiokeen salakuntza eraginkorrena. Eta kasu honarako, Nafarroako karlistek izenpetutako hitzak berak ekarriko ditugu. Erdaraz eta guzti, gure manipulaziorik egon ez dedin.

Egia hau ez da gaurkoa; 1931-koa da; baina egia denak irauten du honenbeste.

Euskal Herriko karlistak Errepublika etorri berrian apirilaren 31-an Donostian bildu eta idatzi zuten agiri batek dionez:

1.- Behar duguna. Fueroak kentzeko Espainiak egin dituen lege guziak derogatu, eta lehengoak gaurkotu: "Junta jeneralak Bizkaian eta Gipuzkoan, Hermandadeak Araban, eta Korteak Nafarroan".

2.- Hala, kanpotarren nagusikeriarik gabe, "gure buruaren jabe eta nagusi izango gara; Fueroak, garaiak eta herriak agindu bezala gaurkotu ditugu".

3.- Lau herrialdeek elkarrekin egoteko ematen dituen arrazoiak (eta hemen nik agindutako erderakada): "Razonez de hermandad y conveniencia política exigen que en esta reconquista de nuestra personalidad, Navarros, Vizcainos, Alaveses y Guipuzcoanos seamos un solo y único pueblo que reclama su libertad".

Eta gero, beste argitasun bat emanaz:

4.- "... Sin que esta unidad de aspiración y de raza implique uniformidad de la legislación y de órganos de gobierno, sino recabando para cada uno de los componentes del Pais Euzkaro lo que sea peculiar de su organización foral".

Hau ez dute gaurko "separatistek" esan; ez dugu abertzaleok del Burgo-k salatutako inbentorik egin.

Hau, beste batzuen artea, Ignacio eta Joaquin Baleztena-k izenpetu zuten.

Karlistak eta Nafarrak.

Eta ez ziren del Burgo baino nafar eskasagoak.